

R. M<sup>a</sup> DE AZKUE

DICCIONARIO  
VASCO - ESPAÑOL - FRANCES

INTRODUCCION DE LUIS MICHELENA



EUSKALTZAINDIA

BILBO 1984

## AURKIBIDEA

ATARI GISA, <i>Fr. Luis Villasante</i> , Euskaltzainburua .....	9
ESTUDIO SOBRE LAS FUENTES DEL DICCIONARIO DE AZKUE, <i>Luis Michelena</i> .....	17
Eskeintza .....	19
Bibliografía .....	21
1. Azkue y la lexicografía vasca .....	23
2. Bases para una revisión crítica .....	33
3. El Suplemento de Larramendi .....	41
Preliminar .....	43
4. Los Suplementos de Araquistain .....	79
Advertencia final .....	87
CODICILO DE 1983, <i>Luis Michelena</i> .....	89
LEXICO DEL ESTUDIO SOBRE LAS FUENTES DEL DICCIONARIO DE AZKUE .....	91
DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, <i>R. M. de Azkue</i> . Tomo I .....	107
DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, <i>R. M. de Azkue</i> . Tomo II .....	717

## ATARI GISA

*Noizbait, urte pila kanpotik ibili ondoan, bere etxera dator Azkue-ren Hiztegia. Euskaltzaindira esan nahi dut. Poz hartzeko eguna da, seme galduaren etorrera izan zen bezala.*

*Hiztegi honek euskal kulturaren bereganatu dituen ospea eta itzala ez dakienik ez da.*

*1905-6. urteetan agertzen da. Urte muga hau mugarri antzo hartu beharko dugu. Ordura arte, euskara landu nahi zutenek ez zuten eskuen artean hiztegi fidagarririk. Larramendirena zen, noski, gehienik erabiltzen zena. Baina hiztegi horretan, jakina denez, nahas-mahas emanak daude hitz jatorrak eta asmatuak, hemengoak eta hangoak, inolazko abisurik irakurleari eman gabe. Bazen, Larramendirenaz gainera, beste hiztegi-rik ere, baina horietarik asko, edo argitaragabe zeuden, edo gehiago edo gutiago Larramendirenetik kutsatuak zeuden.*

*Horregatik, hiztegi on baten behar gorria sumatzen zen. Ez da, bada, harritzeko, Azkuerena agertu zenean, halako poza, eragina eta zirrara piztu bazuen. Txundidura, espantua eta harridura, eta etorkizun arrai baten itxaropena: horra hiztegi honek euskaltzaleengan sortarazi zituen sentipenak.*

*Harridura honen lekukotasunak aldi hartako euskalari eta euskal idazleengan aurkitzea ez da zaila. Hona hemen ale bat edo beste:*

*Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Batzarrean (1918. urtean), Aita Olabide honela mintzatu zen:*

*“La obra lexicográfica de este último [Azkue], sobre todo, basta para inmortalizar su nombre. Cuanto más la estudio y la revuelvo, más grande me parece. Aquello no es el óbolo de la viuda, no es la brizna aportada por la hormiga; es el caudal majestuoso, que recoge de todas las vertientes de nuestra cuenca lingüística aguas corrientes y estantías, puras y turbias, pero siempre fértiles, abundosas y aprovechables. Increíble que aquello sea obra de un hombre solo, aunque ese hombre se llame Azkue, como pudiera llamarse *legión*. Leyendo yo en Littré, la historia íntima de sus veinte años de gestación de su célebre diccionario francés, he podido adivinar qué interesante sería una conferencia en que Azkue hiciese en voz alta examen de conciencia de sus trabajos lexicográficos desde el punto y hora en que los emprendió hasta que corrigió las últimas pruebas de su inmortal diccionario” (1).*

*Orixe-k, berriz, Euskal Esnalea-n ateratako euskal literaturaren kondairan, hau dio:*

*“Azkue R. M. Euskaltzainburuaren Iztegia dugu euskera onaren iturri, ta euskeralanak niori ez diote egitez oni adina zor, eragitez Arana-ri badiote ere” (2).*

*Eta Orixe berak, oraino, Azkue-ren hil-berria ematean:*

(1) OLAVIDE: “Lexicología y Lexicografía”, in *Primer Congreso de Estudios Vascos*, p. 451.

(2) ORIXE: “Euskal literaturaren atze edo edesti laburra”, *Euskal Esnalea* (1927), 250.

“Iztegi aundia gizon sail batek egiteko lana zan, Olabide zanak ziona: baña bakarrak egiña, Iainkoak dakin aiña nekerekin. Berrogei ta amar urtez beitik euskeraz idatzi dugunok, arenean ikasi dugu, ta Iztegi ortara iotzen dugu argitasun-zur” (3).

\* \* \*

*Azkue berak, “Prólogo” delakoan, ematen digu berri zenbait. 15 urtetako lana izan omen zen. Gazte denborako lana, alegia. Azkue bere sasoirik ederrenean zegoen. Eta dena beharko, honelako ekintza bati buru emateko. Ordura arteko hiztegiak —Larramendirena batez ere— baztertu, eta hutsetik hasi behar izan zuen obra bat zeharo berria egiten.*

*Iturrietara jo zuen zuzenik, hots, euskaldunengana eta euskaraz idatzitako liburuetara. Hiztegian Kortaitz hitza begiratzen badugu, honako ohar hau aurkituko dugu: “Con ocasión de esta palabra concibió el autor la idea de reunir a vascos de diversas localidades que autorizasen esta obra”. Eta hala egiten zuen. Zahartegietako gizon eta amona zaharrek biltzen zen eta horien ezpainetatik ikasitako hitzak jasotzen zituen. Ibilaldi luzeak ere egin behar izan zituen gure herri, herrixka eta auzoetan barna.*

*Ugastegi hitzean dioena guztiz salataria da: “Entre Araoz y Ozaeta hay un barrio llamado Ugastegieta, ‘los manantiales’, y lo es en efecto”. “Entre Araoz y Ozaeta”. Muga-keta hau, auzo hori non dagoen esateko, guztiz bitxia da eta mendiz ibili denak bakarrik egin dezake. Aretxabaletako auzoa (edo azpi-auzoa) da Ugastegi (nik beti entzun dut hola, eta ez Ugastegieta). Segur aski, Azkuek Araoztik Arabako Ozaeta-ra mendiz egin zuen bere txangoa, auzo horretatik pasatuz. Elgea-ko (Araba) lankide baten izena ere ematen digu (4). Gaur herriska hau oso mendratua dago eta euskaraz dakienik ez da bertan.*

*Euskal idazle zaharren liburuak ere aztertu zituen Azkuek, beroien hustuketa eginez. Euskal literatura zaharra ez da ugariegia, noski, baina hala ere azterketa hau —euskalki guztietako liburuak hustutzea—, gizon bakar batek egiteko lan eskerga da.*

*Ipar Euskal Herria eta hango literatura ez zuen inondik ere alde batera utzi edo gutietsi gure Azkuek. Pierre Charritton jaunak Bordeleko Unibertsitaterako egin duen tesian ikusten da nola Azkuek har-eman estuak izan zituen Iparraldeko euskaltzaleekin eta bai hango bereko euskaldunekin ere (5).*

*Kemen eta adore handiko gizona zen Azkue, eta bere sasoirik hoberenean zen, Hiztegia taxutu zuenean. Lehen aipatu dugun “Prólogo”ari umorea dario alde guztietarik, umorea, eta euskararenganako maitasun gartsua. Zintzoa da, gainera, Azkue bere lankide eta berri emaileen izenak jartzen, hitzak eta pasarteak nondik hartuak diren esaten, atzerriko euskalariekin euskaldunok dugun zorra aitortzen, eta abar.*

*Euskararen batasunaren arazoa ere behin baino gehiagotan aipatzen du “Prólogo” horretan (6). Eta bai Euskararen Akademiarena ere (7). Artean asmo bat besterik ez zen Akademia hori, baina Azkueren gogoan bizi zen jadanik.*

*Mitxelena esan du (Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue) euskaldunak txunditurik gelditu zirela Azkueren hiztegiak, zoramenez itsuturik bezala, beronengan fidantzia osoa ipintzeraino. Eta hori ez dela on, ezen hiztegiak ez digu baimenik ematen iturrietara ez joateko.*

*Denboraren joanaz —nola ez?— ikusi dira hiztegi honetan zenbait muga eta huts: Argitaraberri ditu Idoia Estornes-ek Unamunoren bi eskutitz (1919. urtean eginak). Batean honela dio:*

“También tengo ganas de criticar el método vicioso con que Azkue hizo su diccionario metiéndose a seleccionar y a excluir aquel elemento de origen latino que hay en el

(3) ORIXE: “Azkue il da (G. B.)”, *Euskera* (1953), 29.

(4) Ikus Prólogo, XI. orrialdean.

(5) P. CHARRITTON: “Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques”. Ikus 184 eta ondoko orriak. Charrittonek dio Broussainen izena beste laguntzaile askoren artean aipatzen duelarik Azkuek, laguntza hura mendrea izan zela pentsa daitekeela, eta egia ez dela bat ere hala. Agian gauza bera esan behar da Kirikiñoen ere. Oroit naiz zer idatzi zidan behin honen alargunak. Esaten zuen bere gizonak asko lagundu ziola Azkueri hiztegian, baina gero hori ez dela agertzen. Haatik, Kirikiñoen izena (Bustintza) aipatzen du Azkuek; hori bai, beste laguntzaile askorenen artean erdi galdua.

(6) Ikus p. XXVI eta XXVII.

(7) Ikus p. XXI.

vascuence que por ser antiquísimo se ha asimilado a él. Porque luego de excluir *goldari* por *ej. o gauza o errege* se admite *mendi* que pudiera ser del mismo origen" (8).

*Bide beretik joango da Eusko Ikaskuntzako III. Batzarrean (Gernikan 1922. urtean) Altubek egingo dion kritika ere (nahiz eta kritika horretan Azkueren eta haren hiztegiaren izenik espreski ez aipa). Lhanderen hiztegiileen ere (1926. urtean) esaten digute erdaratiko hitzen arazoan ez direla Azkue bezain hertsia (9).*

*Gainera, hiztegi hau agertu zen denboratik honera gauza berriak azaldu dira —orduan ezezagun zirenak—, dokumentu zahar batzuk orduan baino hobekiago aztertuak ditugu, jakite iturri edo tresnak ugaritu dira (nahiz eta ez gehiegi). Horregatik ez da miresteke zenbait huts eta akats hiztegi honetan aurkitu bada.*

*Esate baterako, askotan hitz baten barnean nahas-mahas ematen dira adiera guztiz desberdinak, bi hitz desberdin (edo bi baino gehiago) direla ohartu gabe. Adibidez, Laino hitzaren barnean datoz bi adiera hauek: 1.º "niebla", 2.º "sencillo, cándido". Baina hemen ez gaude, segur aski, hitz baten bi adieren aurrean, bi hitz desberdinen aurrean baizik. Honelakorik asko dago hiztegian.*

*Gizonak zer bilatzen duen, eta, gehienetan, hura aurkitzen du (edo aurkitu uste du). Ene iduriko, Azkue, hiztegia egitean, urrezko pitxi ezkutuen bila zebilen. Jatorrizkoa dena, autoktonoa dena, aurkitu nahi zuen eta argitara atera. Liburuetako euskara ere estimatzen zuen, noski, baina agian ez hainbeste. Gutxi asko kutsatua zela iruditzen zitzaion. Ahozko euskara ere kutsatua zen, baina, agian, euskaldunen ezpainetatik, hor nunbaitetako zoko urrunetan bizi diren euskaldun garbien ezpainetarik uste zuen posible zela pitxi ezezagunak jasotzea, hots, gauzak izendatzeko euskarak izan behar zituen hitz jatorrak, eta orduan horiek sarraraziko zituen, kanpotikoak baztertuaz.*

*Hitz asmatuak ez ditu onartzen Azkuek. Bere hiztegian ez die sarrerarik eman. Hitz zaharrei edo ahazturik daudenei, bai. Eta batez ere, ibiliko da hitz jator garbien bila. Honelako aurkikuntza bat bezala eskainiko digu arnari, fruitu-ren ordeztan esan beharko litzatekeena; baina hitz hori Mendigatxa-ren pasarte bat gaizki ulertzetik atera du; "ira-txo" bat baizik ez da, beraz. Soin ere gorputz dela esaten digu Azkuek, baina oinarri sendo gabe, dirudienez. Margo, kolore-ren ordeztan sartu nahiko digu. Oihu hitzean hau dio: "3.º (c?) canto. No sé si es voz popular; por lo menos, es muy propia". Azkuek esan nahi du euskarak izan behar duela bere altxorreko hitz bat kantu-ren ordeztan erabiltzekoa, eta hau proposatzen digu. Juntagailutzat erabiltzen diren anaforiko guztiei gorroto die, erdaren eraginez hartu direla uste duelako, etab.*

*Hiztegian ageri den joera hau literaturara pasatuko da, eta hala sartuko da purismo mota bat, Aranarena ez bezalakoa, baina hizkuntzaren barnean bereizkeriak egiten dituen eta, azken finean, herriko euskaratik gehiago edo gutiago aldentzen dena. Eta askotan erdaratiko hitz bat ordezkatzeko proposatzen duen hitza, gero jakin da bera ere erdaratik zetorrela!*

*Horrela, euskaran erro luzeak bota dituzten hitzak zokoratu edo bigarren mailan utziko ditu askotan. Eta beste batzuk, aldiz, errorik ez dutenak, edo, izatekotan, guztiz erkina dutenak, lehen tokian jarriko.*

*Altube izango da joera honen kritikaririk handiena. Eusko Ikaskuntzako III. Batzarrean argi eta garbi ezarriko du zein den hiztegiileen egitekoa. Ez ditu hark hitz guztiak maila berean jarri behar. Maiztasunari, zabalerari eta hitzak hizkuntzan duen erroztapenari behar dio begiratu. Zenbat eta erabiliago den hitz bat, zenbat eta sustrai sakonagoa duen hizkuntzan, orduan eta jatorragoa da hitz hura, edozein tokitatik datorrelarik ere (10).*

*Altubek asmatu eta bataiatuko du kontu hontan argi handia egotzi duen bereizpen zoriontsu hura: Alegia, gauza bat dela erdal hitza eta beste bat, zeharo beste bat, gero, erdaratiko hitza. Erdaratiko hitza euskal hitza izan daiteke, eta da, euskaran erro sakonak baldin baditu (11).*

(8) IDOIA ESTORNES ZUBIZARRETA: "Dos cartas de Unamuno a Angel Apraiz", in *Piarres Lafitte-ri Omenaldia*, 1983, 771.

(9) "Notons, à ce sujet, que, pour l'emploi des mots d'origine romane, nous avons été moins exclusifs qu'Azkué", *Dictionnaire Basque-Français*, Introduction, p. XXIII.

(10) ALTUBE: "Euskal itz barrijak", in *III Congreso de Estudios Vascos*, p. 78.

(11) *Ikus Euskera* I (1920), 2. zenbakia, 44-54.

*Azkueren eraginez sortutako desbiderapena zuzentzen saiatuko da bere indar guztiez Altube; baina, iduriz, ez zuen, urte haietan behintzat, arrakasta handirik izan.*

\* \* \*

*Azkueren hiztegiak zehazki esaten digu zein euskalkitakoa den hitza, eta hitz hori euskalkiaren hedadura guztian erabilia ez denean (edo, alderantziz, euskalki batean baino gehiagotan erabili ohi denean), zein alderdi edo eremutakoa den ere bai. Hau da hiztegi honen dohainetarik baliotsuenetako bat. Alde honetatik begiratuz, Añilbarro izan zuen aitzindari; baina honek, batetik, ez zuen Iparraldea aztertu, eta, bestetik, xehetasunetan ez da Azkue bezain zehatza eta aberatsa; eta, gainera, garai hartan agertugabea zegoen (Azkuek Zarautzen ikusia zuen arren) (12).*

*Biltzaile izan zela oroz gain Azkue esan izan da, eta egia. Herri baten hilburukoa jasotzeko berariaz hautatua (Tovar-ek esandako hitz bat gogoaraziz). Hiztegia, Kantutegia, Morfologia, Euskal Herriaren Yakintza: horra lau bilduma handi, zein baino zein estimagarriagoak, Euskal Herri zaharraren ondasunetegi edo kutxa direnak. Etxetik zuen Azkuek hortarako grina. Ama, iturri paregabea omen zen esaera, hitz eta holakoetan. Aita, berriz, euskal olerkaria. Gogoan dut noiz eta nola ezagutu nuen lehen aldiz Azkue (aurpegiz, ezen liburuetarik ezaguna nuen lehendik). 1946. urtea zen. Comillas-en kurtsua bukatu eta, Lekeitiora joan nintzen egun pare bat pasatzera ahaide batzuen etxera (Fresnedo jaunagana). Hark esan zidan: "Bihar Azkue ikusten joan behar dogu. Neuk lagunduko deutsut. Udaldia pasatzen etorria da". Ni lotsa nintzen eta uzkur, baina berak bultzatu ninduen. Gelan bere aitaren irudia zeukan, itsasontzi kapitainaren apaingarriez jantzia.*

*Gainera dezagun, baita ere, Elizak apaiz kargu loturazkorik ez ziola behin ere eman, eta hala burutu ahal izan zuen bere bilketa lan harrigarria.*

*Bizkaiko Diputazioari eskerrak atera ahal izan zuen Hiztegia. Mila eta bostehun aleak izan omen zen argitalpen hura, eta oraindik Azkue hil zenean agortu gabe zegoen.*

*Kontuan eduki behar da garai hartan oraindik euskal estudioak guti aitzinatuak zudelako, gauza hauetara jarriak zirenak oso gutti zirela. Euskal liburuek salmenta urria izaten zuten (deboziazko liburu batzuk edo, izan ezik). Entzuna dut inoiz Ejerzizioak egitera Foruko Frantziskotarren komentura erretiratu zela Azkue zenbait egunez; eta gero, alde egiterakoan, ostatu saritzat bere Hiztegia eman zuela.*

*Euskaltzaindiak —eta Euskal Herriak— ez dio oraindik Azkueri behar bezalako omenaldirik egin. Eta egin beharko dio egunen batean (13).*

\* \* \*

*Azkueren hiztegia agortu zen bezain laster, Euskaltzaindiak erabakia hartu zuen: behar zela hiztegi hori bir-argitaratu, baina gaurkotua, eta gaurkotze lan hori Mitxelenari egotzi zion. Bir-argitalpen hura, ordea, uste baino gehiago luzatu da. Mitxelena jaunak orain ere lanean dihardu, baina gaur badakigu honen hiztegia ez dela jadanik Azkuerena izango, beste lan berri bat baizik. Horrek ez du esan nahi, bestalde, Azkuerenarentzat ez dela gehiago tokirik izango. Horregatik, Azkuerena, ut sic, den bezala, bir-argitaratzen dugu, aitzinean Mitxelenaren azterketa bat duelarik.*

*Mitxelenaren hiztegia ager dadin arte, eta bai gero ere luzaroan, segur da Azkueren hiztegiak ez duela gure artean bere itzala eta aginpidea galduko.*

Fr. Luis Villasante  
Euskaltzainburua  
Arantzazun, 1983, Ekainak 6

(12) AÑIBARRO, *Voces Bascongadas Diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra*; Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 1963.

(13) Euskaltzaindiak 1957. urtean omenaldi bat eskeini zion Azkueri, eta orduko hitzaldiak eta Azkueren gutundegiko eskutitz asko urte hartako *Euskera* zenbakian jasoak daude.